

1.1. Aitzinsolasa

"On begi bigarren liburuki honek, hurrengoak laster etorriko direlako esperantzaz". Hala genion oraintsu bigarren liburukiaren aitzinsolasean, lehen liburuki biak plazaratu zirelarik, haien segidakoak, etorkizunak, gogoan. Esan eta egin. Hemengo honekin Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) bere emari oparoaren hirugarrena osatzen du.

Liburu eta DVD gisa atera aurretik, artean bide luze eta konplexua eginak gara, corpus osoarekin eta liburuki bakoitzarekin: euskal mintzaiteran barrena hainbeste kontzeptu oinarritzko nola izendatzen diren bildu, ahozko emaitzak transkribatu, datu-basera sartu, sailkatu, aztertu eta azkenik elaboratu ondorengo fruitua duzue hirugarren ale hau ere, aurreko biak eta ondoren datozkeenak bezala. Lehen bi liburukiak oraintsu argitaratu ziren (Bilbo, 2008) eta oraintsuago aurkeztu (2010eko apirilean), Euskadiko Kutzaren babes ordainez inari esker. Hirugarren hau aurrekoen lorratzean dator, baina ibilian beti ikasten baita lehenaz gainerako berririk, metodologia are hobetzen saiatu gara, elaborazioan eta azken orraztuan.

Ez da alferreko gogoraraztea, corpus honen edukiak –eta liburuki honi dagokiona ere beraz– ez direla orain-oraingoak, orain hogeitahogeita bost urte bitarteko euskararen egoera islatzen dute, 1987-1992 bitartean burutu zen galdeketa esker jasoak baitira datu guztiak. Orduan lekuko izan zirenetarik asko joanak dira segurki, artean ere zaharrak baitziren, eta lekuko fidagarriak beti ere. Emaitzak sailkatu, aztertu eta elaboratzea da ondorik egin dena, horrek ere neke handia eskatu baitu, elaborazio-metodologia ere landu behar baitzen, bidea egin ahala. Kronologiaren aldetik, bada, gaurko zaharren aurreko belaualdiaren testigantza da EHHAren corpus honek erakusten duena.

Hizkuntza atlasek orohar –gurean zein munduan gaindi– tradizioko ondare lexikoa biltzea ohi dute helburu, eta esan gabe doa, gure inkestekin bilatu dena, tradizioko euskal munduari dagozkion izaki eta jardueren gaineko euskarazko izendapenak biltzea izan dela. Eta inkesta egin den garaian euskara tradizioz eta transmisioz oraindik bizirik zen eremuetara mugatu da galdeketa. Transmisioko hizkera jada galdurik den eremuak bazter utzi dira, Erronkariren kasua, hala

nola eskola bidez edo gizartearen indarrez berreskuratu duten gizarte berriagoetakoa ere.

Tradizioko gizartea, tradiziozko lan-jarduerak eta euskal jendeak bere inguruan edo aurrez aur izan duen natura –besteak beste zero-lur-itsasoak–, izan dira egitasmoaren azter eremua. Belaunez belaun lur horri atxikirik bizi izan den euskal gizakiak ingurune horretan ikusi, obserbatu eta landu duena, garatu duen jakintza eta kultura –beti ere jakintza-kultura horietako kontzeptu-kopuru hautua halabeharrez–, nola izendatu duen euskaraz, herriz herri –auzo bat edo beste ere bai lurrez edo nortasunez bereziak zirenean, Oinatiko Araotzen kasua– jaso da. Liburu bakoitzean inkestadun herrietako erantzun guztiak bi modutara ematen dira: "Erantzutegia"n, lurraldeka banaturik eta herrikako ordenaz, eta mapan, orri berezian, erantzun lematizatuak jasotzen dira, bakoitzari kolore berezia dagokiola. Hala, zein lema dagokion herri bakoitzari, halako kolorez margotua dago. Halaxe euskararen eremu osoan, bazterrik bazter, koltsutak modu errazez egiteko eran. Erantzunak mapara hala eroateari bide didaktikoa eta atsegina deritzagu, aditua ez denari ere emaitzak begi aurrean ipintzeko: izenek nolako eboluzioa duten lurrez lur ibili ahala, izen diferente bakoitza, aldaera bakoitza nondik nora hedatzen den, era zaharrak non gorde diren eta berrikuntzak non erne eta garatu, bertoko erro zaharrek non iraun duten eta maileguak non erantsi. Metodo hau zinez goretsia izan da atzerrietako dialektologia-aditu askoren aldetik.

Hirugarren liburuki honetako edukiak ondokoak dira labur: batetik, lurra, euskal gizakia bizi den lurra; lur horretan erne diren belar, landare, zuhaixka eta zuhaitzak; lurra berez edo gizakiaren eraginez ematen dituen uztak; eta bestetik, euskal gizakiarekin belaunez belaun bizikidetzat estuan bizi izan diren animaliak, euren parte esanguratsuak eta euren inguruko prozesuak. Hirugarren ale honen edukia atal nagusi bitan bereiz bageneza, eremu semantiko nagusiok lirarteke: landare-zuhaitzena eta etxe-abereena.

Landare txikiak datoz lehenik: sastraka, lahar, elorri, ote, sasi, basalarrosa, gorosti, ereinotz eta beste. Hor nabari da hitz batzuen aldaera-sakabana uga-

ria: *ginarraren* ondoan, *inarra*, *ilarra* edo *txilarra*; beste batzuen bikoiztasun funtsezkoa: *sasia* eta *laharra*; eta bestetzuen batasun zabala: *elorrria*.

Fruitu eta fruitu-arbolena da hurrengo multzoa: *pikua* bada fruitua, hura ematen duen zuhaitzaren izena: *pikua* edo *ikoa* soilik batzuetan, *piku* edo *iko arbola* beste batzuetan eta *pikondoa* gutxienetan. Ildo beretik *madari-udaretxermenak*, *gerezia*, *sagarra*, *arana*, *mertxika* eta esparru horretako beste hautatu batzuk. Fruitu-atal batzuen izenatarainoko xehetasunak bilatu dira: hala intxaurraren *azal-oskol-kuskuak*, nola gaztainaren *laktz-morkots-gardotsak*. Landare ezagunen fruitu edo uzten izenak ere hor dira: indaba-babarrun, ilar (*idar-ilarxeheak*), baita ere babenak, kasurako. Barazki-ortuari ezagunenak ere jasorik daude: kipula, perrexil, porru, baratxuri, piper, aza eta beste, lur barruko fruituak barne. Belar mota ezagunen, on eta txarren, izenak ere hor dira: sekulabedar eta kamamilarekin batera, ira-garo, untza, goroldio, asun eta beste. Lore naturalen zerrenda hautua ere hor da. Halaber perretxiko mota ezagunen izenak.

Bigarren multzo nagusia abereena da, etxe-abereena, zehazkiago esan. On da jakitea hautatu diren abereez, izenaz gainera, haiei dagozkien kontzeptuez ere galde egin dela: ar-emeak, adinaren araberrako izenak, gorputzaren atalak, janaritza, produkzioa, eritasun-sendabideak, lanak, esaterako. Etxe-abereetan abelgorriak ageri dira lehenik: behia, eta honekin batera idi, zezen, txahal eta ildokoak dira galdegai : adarretatik buztanerrainoko parteak, jarduerak, ganadujatekoak, egoitzak (ikuilu, aska eta enparatu), emaitzak (esne, haragi, simaur), eritasunak, ematen zaizkien hitzezko aginduak, besteak beste. Emaitzetan ezagun da eremu honetan ere izen batzuen bakuntza eta hedadura (*adar*, *errape*, *ausnar*), beste batzuen bikuntza (*erro/titi*) eta hirukuntza ere (*adur/bits/lerde*) . Aztergai diren beste etxe-abereak: zaldi-behorrak, astoa, ardi-ahariak eta ahuntza. Etnografoen iritzian, artzantzari omen dagokio ganaderitzaren aldirik zaharrena euskal eremu honetan, eta inguruetan ere segurki, nahiz egungo abeltzaintzan parte apala izan. Galdetegian artzaintzari ere esparru zabala eskaini zaio: janaritza, produkzioa, eritasunak, egoitzak eta beste barne direla.

Izendapenetan emai-tza bitxiak ageri dira hor ere: *artalde* izen hedatuaren aldamentan, *ardi-errebainu* eta *ardi-tropa* ere oso ezagunak baitira, *ardi-saldo* murrizagoarekin batera.

Amaitzeko, gogora dezagun agerira dakartzagun datuok ez direla inkestan jaso diren adierazgarrienak baino, atlasaren egitura eta helburuei zuzen doazkienak; oinarrizko helburua betetzen dutenak: kontzeptuen izendapen zehatzak zein diren tokian tokian. Gehigarri gisa, mapen barreneko eskumako laukian kontzeptuok argitu, osatu edo garatzen dituzten ingurune aipagarrienak eman ditugu, nahiz beste asko halabeharrez kaxan gorde, neurriari amore eman behar eta. EHHaren emaitza osoak urrunago doaz, eta bide ematen dute ondorengo anitz ikerbidetarako; ez halabeharrik hizkuntzalaritza ildoko ikerketei; beste jakintza-ildo batzuetatik ere, hala nola herri-literatura edo etnografiarenetik, interes bizia eskaintzen dute. Oraingoz bego dagoen horretan.

On degigula guztioi fruitu berri honek, eta probetxugarri gerta dakiola emaitzon beharrean edo jakinmindez dagoen orori.

Adolfo Arejita

EHHA egitasmoaren zuzuzendari akademikoa